| 3. *Erregelamenduak bermatu beharko luke herritarrek beren proposamenak batzordeari helarazteko bide bat; Esate baterako, iradokizunen buzoia.* | 3. *El reglamento debería garantizar una vía para que los ciudadanos hagan llegar sus propuestas a la comisión; por ejemplo, a través de un buzón de sugerencias.* |
| 4. *Aurrera begira, energiarekin lotura duten beste gaiak ere lantzea: mugikortasuna, hondakinak, biodibertsitatea...* | 4. *De cara al futuro, trabajar también otros temas relacionados con la energía: movilidad, residuos, biodiversidad...* |
| 5. *Artikulua. Funtzionamendua. Bileren ordutegiaren egokitasuna batzordekide guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten.* | 5. *Artículo 5. Funcionamiento. Adecuación del horario de las reuniones para que puedan participar todos los miembros de la comisión.* |
| 6. *Ingurumen teknikaria plantilakoa izatea eta beharrezko formakuntza izatea.* | 6. *Que el técnico de medio ambiente pertenezca a la plantilla y cuente con la formación necesaria.* |
| *ALEGAZIOAK EBAZTEA* | *RESOLUCIÓN DE ALEGACIONES* |
| *b Batzordearen helburu nagusietako bat ekimen desberdinen diagnostiko eta jarraipena egitea izanda, ezinbestekotzat jotzen da lantalde dinamiko bat osatzea. Horretarako, bai herritar eta baita enpresek ere energia gaiekiko formakuntza edota esperientzia bat behar dute ezinbestean. Horretaz gain, taldearen partaidetza mugagabe irekita uzteak, dinamikari eraginkortasuna kenduko liokeela kontsideratzen dugu.* | b) *Siendo uno de los objetivos principales de la Comisión el diagnóstico y seguimiento de las diferentes iniciativas, se considera imprescindible la constitución de un grupo de trabajo dinámico. Para ello, tanto la ciudadanía como las empresas necesitan necesariamente una formación y/o experiencia en temas energéticos. Además, consideramos que dejar abierta indefinidamente la participación del grupo restaría eficacia a la dinámica.* |
| *Horrezaz gain aldez aurretik zehaztuta egon beharko litzateke jakiteko bilerak* | *Al objeto de conocer el quorum para la celebración de reuniones y toma de* |

| | |
|---|---|
| *egiteko eta erabakiak hartzeko quoruma zein den.* | *acuerdos, previamente tiene que estar definida la composición.* |
| *c) EA 2030-eko ordezkari batek parte hartzeko aukera txertatuko da araudian.* | *c) Se incorporará al reglamento la posibilidad de que participe un/una representante de EA 2030.* |
| *d) Herritarren proposamenak batzordeari helarazteko ardura Nagusia batzorde hau osatzen duten ordezkari politikoen gain eroriko da. Edozein kasutan, iradokizunak IGunean presentzialki edota erregistro elektronikoaren bidez aurkezteko aukera ere emango da.* | *d) La responsabilidad principal de trasladar las propuestas ciudadanas a la comisión recaerá sobre los/as representantes políticos/as que componen esta comisión. En cualquier caso, también se podrán presentar sugerencias en el IGunea de forma presencial o a través del registro electrónico.* |
| *e) Zuzenean edo zeharka, energiarekin lotura duten gaiak landuko dira.* | *e) De forma directa o indirecta, se tratarán temas relacionados con la energía.* |
| *f) Udalean bultzatzen diren beste parte-hartze mahaietan bezala, guztientzako ahalik eta ordutegi egokiena bilatzen saiatuko gara, noski.* | *f) Como en otras mesas de participación que se impulsan en el Ayuntamiento, intentaremos buscar un horario lo más adecuado posible para todos/as. Por supuesto.* |
| *g) Alegazio honek ez du batzordearen eraketa edo dinamikarekin loturarik.* | *g) Esta alegación no tiene vinculación alguna con la constitución o dinámica de la comisión.* |
| *Horren ondorioz, ERABAKI DA:* | *En consecuencia, se acuerda:* |
| ***Lehenik**. 1 eta 6 alegazioak ez onartzea.* | ***Primera**. Desestimar las alegaciones números 1 y 6.* |
| ***Bigarren**. 2 zenbakia duen alegazioa partzialki onartzea.* | ***Segunda**. Estimar parcialmente la alegación número 2.* |
| ***Hirugarren**. 3 zenbakia duen alegazioa onartzea.* | ***Tercera**. Estimar la alegación número 3.* |
| ***Laugarren**. Ez da beharrezkoa ikusten 4 eta 5 alegazio zenbakiak araudian txertatzea.* | ***Cuarta**. No se considera necesario reflejar en el reglamento las alegaciones números 4 y 5.* |

| | |
|---|---|
| ***Bosgarren***. *Ondorengo Jasangarritasun Energetikoa Batzordearen araudia behin betiko onartzea, hasierako onespenarekiko aldaketekin*." | ***Quinto***. *Aprobar definitivamente el Reglamento de la Comisión de Sostenibilidad Energética con cambios respecto a la aprobación inicial."* |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): "Batzordean adostu genuen alegazioek ebazteko proposamena puntuka bozkatzea. Beraz, proposatzen da:<br><br>1. eta 6. alegazioak ez onartzea.<br>2. alegazioa partzialki onartzea.<br>3. alegazioa onartzea.<br>4. eta 5. Alegazioei buruz iruditzen zaigu ez daudela zertan txertatu beharrik araudiarekin zer ikusia ez dutelako.<br><br>Bozkatzen da, <u>1. eta 6. alegazioak ez onartzea</u>. Bozketa eginda, emaitza ondorengo izan da:<br><br>Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Aurkako botoak: 0<br>Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)<br>Etorri gabea: 1<br><br>Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena. | La Alcaldesa (EAJ-PNV): "En la Comisión acordamos votar por puntos la propuesta de resolución de alegaciones. Por tanto, se propone:<br><br>Inadmisión de las alegaciones 1 y 6. Estimar parcialmente la alegación nº 2. Aceptar alegación 3ª.<br>Respecto a las alegaciones 4º y 5º nos parece que no hay por qué incorporarlas porque no tienen nada que ver con la normativa.<br><br>Se somete a votación la <u>inadmisión de las alegaciones 1 y 6.</u> Realizada la votación, el resultado ha sido el siguiente:<br><br>Votos a favor: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Votos en contra: 0<br>Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu)<br>Ausente: 1<br><br>En consecuencia, se aprueba la propuesta por mayoría absoluta. |
| Alkatea andreak (EAJ-PNV): "Batzordearen taldea osatze aldera, iruditzen zaigu taldeak dinamikoak izan behar direla eta horretarako ezinbestekotzat jotzen da herritarrak eta enpresek energia inguruan formazioa edo esperientzia izatea. Horregatik proposatzen dugu 1. alegazioa ez onartzea. 6. alegazioarekin berdin. Eskatzen da ingurumen teknikoa plantilakoa izatea, baina horrek ez du zer ikusirik batzordearen eraketarekin."<br><br>Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Guk parte hartzea ez genuke mugatuko iruditzen zaigulako gure filosofiaren kontrakoa dela eta teknikariaren inguruan pentsatzen dugu benetan behar dugula udalaren plantilan, jasangarritasun inguruan sortu behar zaizkigun bronka pilo baten aurrean aholkularitza izateko. Horregatik abstenitu egingo gara. | La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Con el fin de formar el grupo de la Comisión, nos parece que los grupos deben ser dinámicos y para ello se considera imprescindible que el ciudadano y las empresas tengan formación o experiencia en torno a la energía. Por eso proponemos no aceptar la alegación número 1. Lo mismo con la alegación nº 6. Se solicita que el técnico de medio ambiente sea de plantilla, lo que no tiene nada que ver con la constitución de la comisión."<br><br>Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Nosotros no nos limitaríamos a participar porque nos parece que es contrario a nuestra filosofía y en torno al técnico pensamos que realmente lo necesitamos en la plantilla municipal para tener asesoramiento ante un montón de broncas que nos tienen que crear en torno a la sostenibilidad. Por eso nos vamos a abstener. |

| | |
|---|---|
| Alkatea andreak (EAJ-PNV): "2.alegazioa partzialki onartzea proposatzen da. Eskola Agenda 2030 ordezkaritzaren parte hartzea eskatu zen eta proposatzen dena da araudian txertatzea, ordezkari batek parte hartzeko aukera izatea."<br><br>Bozketa eginda, emaitza ondorengoa izan da:<br><br>Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Aurkako botoak: 0<br>Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)<br>Etorri gabea: 1 | La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Se propone la aprobación parcial de la alegación nº 2. Se solicitó la participación de la delegación de Agenda Escolar 2030 y lo que se propone es que se incorpore a la normativa, que un representante pueda participar. "<br><br>Realizada la votación, el resultado ha sido el siguiente:<br><br>Votos a favor: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Votos en contra: 0<br>Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu)<br>Ausente: 1 |
| Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Zehazten da Eskola Agenda 2030eko ordezkari bat egotea baina, eskola bakoitzak berea izaten du eta ez dakit nola burutuko den denen iritzia ordezkari batekin batzea. Agian ez da funtzionala bakoitzetik bat etortzea, baina bakarra jartzea ere, oso mugatua iruditzen zaigu. Hori gure abstenitzearen arrazoia."<br><br>Alkate andreak (EAJ-PNV): "3. alegazioa onartzea proposatzen da. Herritarrek batzordeari helarazteko bide bat izatea eskatzen zen, hau da, iradokizunen buzoia esatebaterako. Ados honekin."<br><br>Bozketa eginda, aho batez onartu da.<br><br>Alkate andreak (EAJ-PNV): "4. eta 5. alegazioei buruz esan ez ditugula beharrezkoak ikusten araudian txertatzea. 4. alegazioak esaten duena da batzordeak energiarekin lotura duten gaiak landuko direla eta horrela da 5. alegazioak beste parte hartze foroetan bezala Udalak bultzatuko du ordutegi egokiena bilatzen. Hori beti egiten da, nahiz eta denon adostasuna lortzea zaila izan.<br><br>Bozketa eginda, emaitza ondorengo izan da:<br><br>Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Aurkako botoak: 0<br>Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)<br>Etorri gabea: 1 | Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Se determina que haya un representante de la Agenda 2030 Escolar pero, cada escuela tiene el suyo y no sé cómo se va a llevar a cabo para trasladar la opinión de todos con un representante. Quizás no es funcional que acuda uno de cada uno, pero también poner uno, nos parece muy limitado. Ésa es la razón de nuestra abstención. "<br><br>La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Se propone aprobar la alegación nº 3. Se pedía que los ciudadanos tuvieran una vía para hacer llegar a la comisión, es decir, por ejemplo un buzón de sugerencias. De acuerdo con esto. "<br><br>Realizada la votación, se aprueba por unanimidad.<br><br>La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Respecto a las alegaciones 4 y 5 decir que no vemos necesario incorporarlas a la normativa. La alegación nº 4 dice que la comisión tratará temas relacionados con la energía y así es. La alegación nº 5 como en otros foros de participación el Ayuntamiento intentará buscar el horario más adecuado. Eso siempre se hace, aunque sea difícil lograr el consenso de todos.<br><br>Realizada la votación, el resultado ha sido el siguiente:<br><br>Votos a favor: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Votos en contra: 0<br>Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu)<br>Ausente: 1 |

| | |
|---|---|
| | |
| Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guri bai iruditzen zaigu beharrezkoa araudian alegazioa txertatzea jasota gera dadin eta parte hartu behar dutenek jakin dezaten ahalegina egingo dela ordutegiarekiko, izan ere, maiz ordutegia, teknikoak dutenaren arabera finkatzen da. Bide batez garrantzitsua da beste gai batzuk tratatzeko aukera izatea, noski lotura dutenak.”<br><br>Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “ 2. artikuluan hori aipatzen da. 3. eta 4. puntuetan honela dio: “*Energiarekin zerikusia duten udal politikaren jardun-ildoak proposatzea eta gaiarekin lotutako udalaren plan eta politiken jarraipena egin eta eragina aztertzea*. Horrekin ulertzen da energia zeharka lantzen den gaia dela.”<br><br>Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Orduan esan behar genuen ez dela beharrezkoa txertatzea, araudian horren aipamena egiten delako.”<br><br>Alkate andreak (EAJ-PNV): “Horren ondorioz, proposatzen dena da, Jasangarritasun Energetiko Batzordearen araudia behin betiko onartzea, hasierako onespenarekiko aldaketekin.<br><br>Horren ondorioz, bozketa eginda, emaitza ondorengoa izan da:<br><br>Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Aurkako botoak: 0<br>Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)<br>Etorri gabea: 1<br><br>Gehiengo osoarekin Jasangarritasun Energetikoa Batzordearen ondorengo araudia onartu da: | Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "A nosotros sí nos parece necesario incorporar la alegación en la normativa para que quede constancia y los que tengan que participar sepan que se va a hacer un esfuerzo con respecto al horario, porque con frecuencia el horario se fija en función del horario que tienen los técnicos. Y de paso, es importante tener la oportunidad de tratar otros temas, por supuesto que tengan relación. "<br><br>Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): "Se menciona en el artículo 2. En los puntos 3 y 4 se señala que " *Proponer las líneas de actuación de la política municipal relacionadas con la energía y seguimiento y análisis de impacto de los planes y políticas municipales en la materia*.Con ello se entiende que la energía se trata de manera transversal.<br><br>Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Entonces teníamos que decir que no es necesario incorporarlo porque en la normativa se hace referencia a ello."<br><br>La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "En consecuencia, lo que se propone es la aprobación definitiva del Reglamento de la Comisión de Sostenibilidad Energética, con las modificaciones respecto a la aprobación inicial.<br><br>En consecuencia, realizada la votación, el resultado ha sido el siguiente:<br><br>Votos a favor: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)<br>Votos en contra: 0<br>Abstenciones: 5 (Beasaingo EH Bildu)<br>Ausente: 1<br><br>Se aprueba por mayoría absoluta el siguiente Reglamento de la Comisión de Sostenibilidad Energética: |
| | |

| “ARRAZOIEN AZALPENA | EXPOSICIÓN DE MOTIVOS |
|---|---|
| Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean aurreikusitako helburuak lortzeko bidean, eta administrazio bakoitzeko erakundeak koordinatzeko, 9. artikuluak zehazten du Autonomia Erkidegoko Administrazioak, lurralde historikoetako administrazioek eta udalerrietako administrazioek batzorde bana izango dutela jasangarritasun energetikorako, edo antzeko ezaugarriak eta funtzioak dituzten erakundeak. | En la consecución de los objetivos perseguidos por la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, y para la coordinación de los distintos entes integrantes de cada administración, el artículo 9 determina que la Administración de la Comunidad Autónoma, las Administraciones de los Territorios Históricos y las de los municipios contarán cada una, bien con una comisión para la sostenibilidad energética, o bien con entidades de similares características y funciones que pudieran existir |
| 1. **KAPITULUA.**<br><br>**XEDAPEN OROKORRAK** | **CAPÍTULO I**<br><br>**DISPOSICIONES GENERALES** |
| 1. **Artikulua. Definizioa** | **Artículo 1. Definición.** |
| Araudi honen bidez Jasangarritasun *E*nergetikoaren Batzordea sortzen da, osaketa arautzen da, funtzioak zehazten dira eta funtzionamenduaren araubidea ere ezartzen da. | Mediante el presente Reglamento se crea la Comisión de Sostenibilidad Energética, se regula su composición, se determinan sus funciones y se establece el régimen de funcionamiento. |
| Araudi honen helburua gizarte eragileek, elkarteek, erakunde publiko adituek, gizartearen ordezkariek eta langileen ordezkariek Jasangarritasun Energetiko Batzordearen politika diseinuan eta erabakietan benetan parte hartzen dutela ziurtatzea da. | El objetivo del presente Reglamento es asegurar la participación efectiva de agentes sociales, asociaciones, entidades públicas expertas, representantes de la sociedad y de las personas trabajadoras en el diseño de las políticas y decisiones de la Comisión de Sostenibilidad Energética. |
| 2. **Artikulua. Helburu eta funtzioak** | **Artículo 2. Objetivos y funciones** |
| 1. 11. artikuluan aipatzen den, eraikinen, instalazioen eta parke mugikorraren inbentarioaren onarpena proposatzea.<br><br>2. Landuko diren gaien inguruko herriko egoeraren azterketa sustatzea.<br><br>3. Energiarekin zerikusia duten udal politikaren jardun-ildoak proposatzea. | 1. Proponer la aprobación del inventario de edificios, instalaciones y parque móvil a que se refiere el artículo 11.<br><br>2. Promover el análisis de la situación del municipio en torno a los temas a tratar.<br>3. Proponer las líneas de actuación de la política municipal relacionadas con la energía |

| | |
|---|---|
| 4. Gaiarekin lotutako udalaren plan eta politiken jarraipena egin eta eragina aztertzea.<br><br>5. Aipatutako Legea betetzeko hartutako neurrien garapena gainbegiratzea eta bermatzea, bai eta bertan ezarritako helburuak betetzen direla ere.<br><br>6. Bere jarduketa-plan energetikoaren egoerari eta garapenari buruzko informazioa ematea aldizka.<br><br>2. **KAPITULUA.**<br><br>**JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN BATZORDEAREN OSAKETA**<br><br>3. **Artikulua. Osaera**<br><br>1. Jasangarritasun Energetiko Batzordea honela osatuta egongo da:<br><br>a) Lehendakaria: Alkatea; alabaina, edozein zinegotziren esku utz dezake lehendakaritza.<br><br>Lehendakaria kide kualifikatutzat hartuko da, eta kalitatezko botoa izango du.<br><br>b) Lehendakariordea: Lurralde Batzordeko Lehendakaria izango da. Lehendakaria ordezkatuko du, azken honen kargua hutsik dagoenean, ez dagoenean edo gaixo dagoenean.<br><br>c) Batzordekideak: Lurralde Batzordeko zinegotziak.<br><br>Titular edo ordezko gisa parte hartuko dute. Horretarako, Lurralde Batzordearen osaerari buruzko Alkatetzaren Ebazpena hartuko da kontuan. | 4. Seguimiento y análisis de impacto de los planes y políticas municipales en la materia.<br><br>5. Supervisar y garantizar el desarrollo de las medidas adoptadas en cumplimiento de la citada Ley, así como el de los objetivos establecidos en la misma.<br>6. Informar periódicamente sobre el estado y desarrollo de su plan energético de actuación.<br><br>**CAPÍTULO II.**<br><br>**COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN DE SOSTENIBILIDAD ENERGÉTICA**<br><br>**Artículo 3. Composición**<br><br>1. La Comisión de Sostenibilidad Energética está compuesta por:<br><br>a) Presidente/a: Alcalde; sin embargo podrá delegar la presidencia efectiva en cualquier concejal de la Corporación.<br><br>El/La Presidente/a tendrá la consideración de miembro cualificado y contará con voto de calidad.<br><br>b) Vicepresidente/a: Lo será el/la titular de la Presidencia de la Comisión de Territorio. Sustituirá al/a la presidente/a en caso de vacante, ausencia o enfermedad.<br><br>c) Vocales: Concejales/as de la Comisión de Territorio.<br><br>Participarán en calidad de titular o suplente. A estos efectos se tendrá en cuenta la Resolución de Alcaldía relativa a la composición de la Comisión de Territorio. |

| | |
|---|---|
| d) Langileen ordezkariak. | d) Representantes de los trabajadores y trabajadoras. |
| e) Jarduera udalerrian edo eskualdean garatzen duten elkarteetako eta Beasaingo enpresetako gehienez lau kide. Batzordearen Lehendakariak aukeratuko ditu, udalean ordezkaritza duten talde politikoek proposatuta. | e) En representación de asociaciones locales o comarcales que intervengan en el municipio y de empresas radicantes en Beasain, como máximo cuatro vocales. La elección la efectuará el Presidente/a de la Comisión, a propuesta de los grupos políticos con representación en el Ayuntamiento. |
| f) Eskolako Agenda 2030ko ordezkari bat | f) Un representante de Agenda 2030 escolar |
| g) Herritarrak: Gehienez lau herritarrek parte hartuko dute, energiaren inguruan ikasketak edo formazioa dutenak. | g) Ciudadanía: participarán como máximo cuatro ciudadanos/as con estudios o formación en torno a la energía. |
| Deialdi publikoa egin ondoren, aipatutako baldintza betetzen dutenekin zerrenda egingo da. Lau pertsona baino gehiagok parte hartu nahi badute, batzordekideak zozketa bidez hautatuko dira (2 emakume eta 2 gizon), eta gainerakoak itxaron-zerrendan sartuko dira, hutsuneak betetzeko.<br><br>Lehendakariordeari eta batzordekideak diren zinegotziei kontsulta egin ondoren, Alkateari ahalmena ematen zaio parte-hartzaileak hautatzeko, adierazitako moduan egin ezin bada. | Previa convocatoria pública, se elaborará una lista de personas que cumplan el requisito citado. Si son más de cuatro las personas interesadas en participar, los/as integrantes de la Comisión se seleccionarán por sorteo (2 mujeres y 2 hombres) y el resto pasarán a formar parte de la lista de espera para cubrir las vacantes.<br><br>Previa consulta al/a la Vicepresidente y vocales concejales, se faculta al Alcalde para seleccionar a los/as participantes, si no pudiera efectuarse de la manera señalada. |
| g) Idazkaria (Ingurumen alorrean Udalari Aholkularitza ematen dion teknikaria), hitzarekin baina botorik gabe. | g) Secretario/a (Técnico/a que asesora al Ayuntamiento en materia de Medio Ambiente), con voz pero sin voto. |
| Lehendakariak, Lehendakariordeak edo edozein kidek hala proposatuz gero, Batzordeko bileretan parte hartu ahal izango dute, batzor-deko kideak izan ez arren, hitzarekin baina botorik gabe: | A propuesta del Presidente/a, del Vicepresidente/a o de cualquiera de los vocales miembros, podrán también participar en las reuniones de la Comisión aun no siendo miembros del mismo, con voz pero sin voto: |
| h) Energia, Ingurumena edo Lurralde Antolamenduari dagokion Udal edo eskualdeko teknikariek. | h) Técnicos/as municipales o comarcales correspondientes a Energía, Medio Ambiente u Ordenación del Territorio. |

| | |
|---|---|
| 2. Batzordea osatzen duten pertsonen izendapenean eta hautaketan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 eta 23. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz. | 2. En el nombramiento y selección de las personas que componen la Comisión se garantizará una presencia equilibrada de mujeres y hombres, de conformidad con lo previsto en los artículos 3.7 y 23 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. |
| 3. Batzordean parte-hartzaileek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira, Udalak onartutako hizkuntza irizpideak kontuan izanda. | 3. En la Comisión se adoptarán las medidas necesarias para garantizar el derecho de elección de la lengua de los participantes teniendo en cuenta los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento. |
| 4. Lehendakariak, bere ekimenez edo batzordekideren batek eskatuta, iritzi kualifikatuak behar dituen gairen bati buruz, adituak gonbidatu ahal izango ditu bileretan parte hartzera. Pertsona horiek ez dute boto-eskubiderik izango. | 4. El/la Presidente/a, por propia iniciativa o a instancia de alguno de los miembros de la Comisión, podrá invitar a participar en sus reuniones a personas expertas en relación a algún asunto que precise de opiniones cualificadas. Estas personas no tendrán derecho a voto. |
| 4. **Artikulua. Batzordeko kideen izendapena eta kargu-uztea.** | **Artículo 4. Nombramiento y Cese de los Vocales de la Comisión**. |
| 1. Batzordeko kideak Alkateak izendatuko ditu. | 1. Los vocales de la Comisión serán nombrados por el Alcalde. |
| 2. Kideek aldez aurretik onartu beharko dute beraien izendapena. | 2. El nombramiento de los vocales requerirá la aceptación previa por parte de los designados.. |
| 3. Batzordeko kideen izendapenen iraupena Korporazioko agintaldiarena izango da. Honako arrazoi hauengatik amaituko dira izendapenak: | 3. La duración del mandato de los miembros de la Comisión coincidirá con la del mandato de la Corporación. Cesarán por las siguientes causas: |
| a) Kide izateari uko egiteagatik. | a) Por renuncia. |
| b) Zinegotzien kasuan, epai irmo baten bidez kargu publiko bat betetzeko ezintasuna edo ezgaitasuna aitortzen denean. | b) En el caso de los concejales, por sentencia firme que declare la imposibilidad o incapacidad para desempeñar un cargo público. |
| c) Kargua edo ordezkaritza uzteagatik. | c) Por cese en el desempeño del cargo o de la representación que ostenten. |
| 4. Kargua utziz gero, Alkateak beste izendapen bat egingo du. | 4. En caso de cese el Alcalde efectuará una nueva designación. |

| a) **KAPITULUA.** | **CAPÍTULO III.** |
| --- | --- |
| **FUNTZIONAMENDUA** | **FUNCIONAMIENTO** |
| **5. Artikulua. Funtzionamendua.** | **Artículo 5. Funcionamiento** |
| Batzordea urtean gutxienez 4 aldiz bilduko da. | La Comisión se reunirá al menos 4 veces al año. |
| Batzordeak 3 hilez behin egingo ditu ohiko bilerak. Ezohiko bilerak, berriz, lehendakariak beharrezkotzat jotakoan, batzordekideak diren zinegotziek proposatutakoan egingo dira, edo gutxienez kideen erdiek hala eskatzen dutenean. | La Comisión se reunirá con carácter ordinario cada tres meses. Las reuniones extraordinarias se celebrarán cuando lo considere necesario el/la Presidente/a, a propuesta de los vocales concejales y cuando así lo solicite al menos la mitad de sus miembros. |
| Bileren deialdia lehendakariak erabakiko du, eta bilerarako aurreikusitako eguna baino 5 egun baliodun lehenago egingo da. Idazkaria arduratuko da kideei helarazteaz telematikoki. | La convocatoria de las reuniones será acordada por el/la Presidente/a y se efectuará 5 días hábiles antes de la fecha prevista para la reunión. El/la secretario/a se encargará de hacerla llegar a sus miembros de modo telemático. |
| Deialdiarekin batera gai-zerrenda eta bileran aztertu beharreko gaien dokumentazioa bidaliko dira. | A la convocatoria se acompañará el orden del día y la documentación de los asuntos a tratar en la reunión. |
| Bilkurak egin, eztabaidatu eta erabakiak har-tzeko beharrezkoa izango da Lehendakariaren eta Idazkariaren presentzia, edo bestela, horiek eskuordetutako pertsonena, eta Batzordeko kideen gehiengo osoarena. Gainera, zinegotziak ez diren kideen herena beharko da. | Para la celebración de las sesiones será necesaria la presencia de la Presidencia y del/a Secretario/a o en su caso, de quienes les sustituyan y la de la mayoría absoluta de sus miembros, debiendo concurrir además un tercio de miembros no concejales. |
| h) **Artikulua. Deliberazioak**<br>Batzordeko lehendakariak batzarrak zuzendu, eztabaidak antolatu eta bilerak ondo egiten direla bermatzeko komenigarriak diren neurriak hartuko ditu. | **Artículo 6. Deliberaciones**<br>El/La Presidente/a de la Comisión presidirá las sesiones, organizará los debates y adoptará las medidas que sean convenientes para garantizar el buen orden de las mismas. |
| i) **Artikulua. Lan-batzordeak**<br>1. Lan batzordeak osatu ahal izango dira batzordeari dagozkion gai zehatzak jorratzeko edo batzordearen gehiengoak beharrezkotzat jotzen duenean. | **Artículo 7. Comisiones de trabajo**<br>1. Podrán constituirse Comisiones de Trabajo para tratar asuntos concretos de la misma o cuando la mayoría de la Comisión lo considere necesario. |

| | |
|---|---|
| 2. Lan batzordearen osaera, izena eta funtzionamendua batzordeak erabakiko du. | 2. La composición, denominación y funcionamiento de la comisión de trabajo se determinarán por la misma. |
| 3. Lehendakariak udal-teknikarien edo kanpoko aholkularien laguntza eskatuko du, beharrezkotzat jotzen badu. | 3. El/La Presidente/a solicitará el apoyo técnicos municipales o asesores externos, si lo considera necesario. |
| 4.- Lan batzordeek jorratutako gaien berri emango diote batzordeari. | 4. Las comisiones de trabajo informarán a la comisión de los temas tratados. |
| Herritarrek beren proposamenak udal taldeen bitartez zuzentzeko aukera izango dute. IGunean ere aurkeztu ahal izango dituzte, aurrez aurre edo telematikoki erregistro elektronikoaren bidez. | Los ciudadanos tendrán la posibilidad de dirigir sus propuestas a través de los grupos municipales. También las podrán presentar en IGunea presencialmente o telemáticamente a través del registro electrónico. |
| **8. Artikulua. Erabakiak hartzea** | **Artículo 8. Adopción de acuerdos** |
| Batzordea erabakiak modu adostuan eta talde guztiak bultzatuta hartzen saiatuko da. Bela botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira eta berdinketarik egonez gero, lehendakariak kalitate botoa emango du. Botoak, aldekoak edo aurkakoak izango dira. Abstenitu ere egin daiteke. | La Comisión procurará adoptar sus acuerdos de forma consensuada e impulsada por todos los grupos. En caso contrario se adoptarán por mayoría simple de votos y, en caso de empate, el/la Presidente/a emitirá su voto de calidad. Los votos pueden se afirmativos o negativos. También podrá optarse por la abstención. |
| Nolanahi ere, boto partikularrak har daitezke eta ados ez dauden alderdien iritziak agerrarazi. | En todo caso, se podrán adoptar votos particulares y dejar constancia de las objeciones planteadas por las partes discrepantes. |
| Hartzen diren erabakien akta idazkariak jasoko du eta bilera bakoitzaren audioa grabatu egingo da. | El/la secretario/a será la persona encargada de levantar el acta de los acuerdos adoptados y se grabará el audio de cada reunión. |
| Hamabost eguneko epean akta batzordeko kideei bidaliko zaie eta hurrengo batzarrean batzordeko kideen gehiengo soilaren aldeko botoekin onartuko da edo ez onestea erabakiko da. | El acta será remitida a los miembros de la Comisión en el plazo de quince días y será aprobada o no en la siguiente reunión con el voto favorable de la mayoría simple de los miembros de la Comisión. |
| Ezin izango da eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan agertzen ez den gairik, salbu eta | No podrá ser objeto de deliberación o acuerdo ningún asunto que no figure en el orden del día, |

| | |
|---|---|
| gehiengo osoz presakotzat jotzen bada; kasu horretan, eztabaidatu eta bozkatu egingo da, galde-eskeen kapitulua baino lehen.<br><br>Batzordearen erabakiak, proposamenak edo txostenak ez dira lotesleak izango edozein Udal organorentzat. | salvo que por mayoría absoluta se declare la urgencia, en cuyo caso se debatirá y se someterá a votación antes del capítulo de ruegos y preguntas.<br><br>Los acuerdos, propuestas o informes de la Comisión no serán vinculantes para ningún órgano municipal. |
| **9. Artikulua. Funtzionamenduko barne arauak** | **Artículo 9. Normas internas de funcionamiento** |
| Adierazitakoez gain Batzordeak, funtzionamenduko beste barne-arau batzuk onar ditzake. | Además de las señaladas, la Comisión podrá adoptar otras normas internas de funcionamiento. |
| **IV. KAPITULUA.**<br><br>**BATZORDEAREN DESEGITEA** | **CAPÍTULO IV**<br><br>**DISOLUCIÓN DE LA COMISIÓN** |
| **10. Artikulua. Batzordearen desegitea** | **Artículo 10. Disolución de la Comisión** |
| Jasangarritasun Energetikoaren batzordea desegitea Udalbatzari dagokio. Hori gertatuko balitz, Batzordea desegiteko erabakia formalki komunikatuko zaie osatzen duen kideei. | Corresponde al Pleno la disolución de la Comisión de Sostenibilidad Energética. Llegado el caso, el acuerdo de disolución de la Comisión se comunicará formalmente a sus miembros. |
| **LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA** | **DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA** |
| 1. Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogei asteguneko epean, 3. Artikuluan adierazitako elkarte eta pertsonek, nahi izanez gero, Jasangarritasun energetikoaren batzordean parte hartzea eska dezake. Alkateak eskaera horiei erantzun eta onartutako pertsonak deituko ditu Batzordea eratzeko egingo den bilerara. | 1. En el plazo de veinte días hábiles a partir de la publicación del presente Reglamento en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, las asociaciones y personas señaladas en el artículo 3. podrán solicitar la participación voluntaria en la Comisión de Sostenibilidad Energética. El Alcalde atenderá estas peticiones y convocará a las personas admitidas a la reunión de constitución de la Comisión. |
| 2. Jasangarritasun Batzorde Energetikoa formalki eratuta geratuko da horretarako deituko den bileraren bitartez. | 2. La Comisión de Sostenibilidad Energética quedará formalmente constituida mediante reunión convocada al efecto. |
| **AZKEN XEDAPENA** | **DISPOSICIÓN FINAL** |

| | |
|---|---|
| Araudi hau indarrean egongo da hamabost asteguneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.” | El presente Reglamento entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.” |
| **5.- INFORMAZIOA**. 2021erako finantza kontroleko plana eta 2020ko barne kontrolari buruzko urteko laburpen txostena. | **5.- INFORMACIÓN** . Plan de control financiero 2021 e informe resumen anual de control interno 2020. |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): “Aurreko eta iazko finantza kontroleko planari buruzko informazioa, azkeneko antolakuntza batzordean kontuhartzaileak informazioa eman zuen, dokumentazioa helarazi zaizue eta osoko bilkura honetan kontu emata tokatzen da eta ez da bozkatu behar.<br><br>Iazko kontu orokorra onartu zenean adierazi zen 3 hilabeteko epean ekintza plana aurkeztu beharra zegoela, hartutako zuzenketa neurriak eta neurri horiek gauzatzeaz arduratuko den pertsonarekin izandapenarekin eta egutegi batekin. Alkateak 2020ko kontu orokorra udalbatzara ekartzen duenean ekintza planaren berri eman behar du. Laburbilduz aipatuko nituzke kontratazio arloan, aipatzen zen neurri zuzentzaile modura, kontratistak behin eta berriz emandako zerbitzuen inguruan egin beharreko hobekuntzak. Plangintza bat eginda dago baina askotan epeetan gauzatzea kostatu egiten da, baina balorean jarriko nuke argiteria mantenu edo hobekuntza lanetarako egin den esleipena. Planifikatuta dago baita ere, ingurumen zerbitzuak eskaintzeko urte bukaera baino lehen lizitazioa martxan jartzea. Kontratuen egutegiari dagokionez eta Igartza eta Usurbe zineko luzapenekin berriro gerta ez dadin, zuzendaritza taldeak hilean behin errepasatuko ditu hurrengo hilebeteetan amaituko diren kontratuak eta ondoren dagokion lan taldean landuko dira, epe muga iritsi baino lehen luzatzeko edo esleipen berria martxan jartzeko. | La Alcaldesa (EAJ-PNV): "Información sobre el plan de control financiero anterior y del año pasado, en la última comisión de Organización la interventora dio la información, se os ha trasladado la documentación y en este pleno toca rendir cuentas y no hay que votar.<br><br>Cuando se aprobó la cuenta general del año pasado se indicó que en el plazo de 3 meses había que presentar el plan de acción, con la designación de la persona encargada de ejecutar las medidas correctoras adoptadas, un calendario y las medidas correctoras adoptadas. Cuando la Alcaldesa trae la Cuenta General 2020 al Pleno debe dar cuenta del plan de acción. Resumiría las mejoras a realizar en materia de contratación, como medida correctora a la que se hacía referencia, en relación con los reiterados servicios prestados por el contratista. Existe una planificación pero muchas veces cuesta llevarla a cabo en plazos, pero pondría en valor la adjudicación que se ha hecho para las obras de mantenimiento o mejora de alumbrado. También está planificada la puesta en marcha de la licitación antes de fin de año para la prestación de servicios medioambientales. En cuanto al calendario de contratos y para evitar que se vuelva a repetir lo de las prórrogas de Igartza y Usurbe Antzokia, el equipo directivo repasará una vez al mes los contratos que finalizarán en los próximos meses y posteriormente se trabajarán en el grupo de trabajo correspondiente para prorrogarlos antes de que llegue el plazo límite o poner en marcha la nueva adjudicación. |
| Plan horretako beste atal da dirulaguntzen kudeaketa. Zuzenketa modura aipatzen dena da, aurrekontuan nominatiboak ez diren heinean lehia bidez izapidetzea. Horren adibide, gizarte ongizateko dirulaguntzen inguruan onartutako | Otro apartado de este plan es la gestión de las subvenciones. Como medida correctora se propone que en la medida en que no son nominativas en el presupuesto su tramitación sea por vía de concurrencia. Como ejemplo, |

| | |
|---|---|
| oinarriak ditugu.Egia da hemen lan asko dagoela egiteko, batik bat herriko kirol eta kultur elkarteetaz ari gara. Azken urteetan beraien jardueretarako nominatiboki jarri dira dirulaguntzak aurrekontuetan. Sakonki aztertu behar da zein aukera dauden eta zeintzuk izan beharko liratekeen lehia bidez joan beharko liratekeenak. Hortan gabiltza. Oinarriak datu base nazionalean argitaratzen dira eta etxeko lana bada ere, hori ondo egiten da."<br><br>Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Guk balorazio txiki bat egin nahi dugu kontuhartzaileak emandakko txostenaren inguruan. Gauza askotan bat egiten du legegintzaldian salatzen dugunarekin, gabeziak aipatzerakoan eta kontratu txikiena nabarmenena. Egia da bide bat egiten ari garela baina guk plenoro jakinarazten dugu kontratu horien beharra zerk sortzen duen, hain zuzen ere, azpikontratatzeko kudeaketa ereduak. Uste dugu hori dela sakoneko arazoa eta horren ondorio direla txosten horretan jasotakoak.<br><br>Dirulaguntzen inguruan esan, jakinda ere gauzak behar bezala ez ditugula egiten, iaz ere babestu genuen udal honek daraman bidea zentzu honetan eta hobetzeko ere badagoela jarraipena egiterakoan.<br><br>Dena dela iruditzen zaigu urgentzia aitzakia dela medio, hain zuzenak ez diren pausoak ematen dituela udal gobernu honek. Gure ustetan lan publikoa bultzatu behar da eta batzordean ere esan genuen lan horretan eskua botatzeko ondoan izango garela. Arazo hauek bere kausalitatea dute eta dira, zerbitzuak azpikontratatzea eta kanpora ateratzea." | tenemos las bases aprobadas en torno a las subvenciones de bienestar social. Es cierto que aquí hay mucho trabajo que hacer, sobre todo estamos hablando de las asociaciones deportivas y culturales del pueblo. En los últimos años se han presupuestado las subvenciones nominativamente para sus actividades. Hay que analizar a fondo qué opciones hay y cuáles deberían ser las que deberían ir por competencia. Eso es lo que estamos haciendo. Las bases se publican en la base de datos nacional y aunque se trata de un trabajo, eso se hace bien. "<br><br>Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Nosotros queremos hacer una pequeña valoración del informe emitido por la interventora. En muchas cosas coincide con lo que denunciamos en la legislatura, a la hora de referirse a las carencias y lo más notorio es lo de los contratos menores. Es cierto que estamos recorriendo un camino pero nosotros decimos en cada pleno qué es lo que genera la necesidad de estos contratos, precisamente, el modelo de gestión de subcontratar. Creemos que ese es el problema de fondo y lo que se recoge en este informe es fruto de ello.<br><br>En relación a las subvenciones decir que, aun sabiendo que no hacemos las cosas correctamente, el año pasado también apoyamos el camino que lleva este ayuntamiento en este sentido y que hay que mejorar en el seguimiento.<br><br>De todas formas nos parece que con la excusa de la urgencia, este gobierno municipal da pasos que no son tan correctos. Creemos que hay que impulsar el trabajo público y en la comisión dijimos que estaremos para echar una mano en ese trabajo. Estos problemas tienen su causalidad y son la subcontratación y externalización de servicios. " |
| Alkate andreak (EAJ-PNV): "Legegintzaldian funtzionatzeko modua aipatuko nuke, hain zuzen ere, salatzen duzuena. Hau da beti eta azken urteetan funtzionatu izan den modua, hobetzen ari garena eta edozein fiskalizazio txosten edo auditoritzan azaltzen dira gabeziak eta horiek konpontzeko neurriak. Hortaz ari gara. Kontuhartzaileak esan zuen 30 kontratu txikiko | La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "Diría que denunciáis la forma de funcionar en la legislatura. Esta es la forma en que siempre y en los últimos años se ha funcionado, lo que estamos mejorando y en cualquier informe o auditoría de fiscalización se explican las deficiencias y las medidas para subsanarlas. De eso estamos hablando. La interventora dijo que |

| | |
|---|---|
| espdienteak hartuta ez zen akatsik detektatu. Kontratu txikietan lanketa izugarria egin da eta bafaude lizitatu beharreko kontratuak. Dena dela kontuan hartu behar dugu kontratu txikiak aipatzen ditugunean, argi izan behar dugu zertaz ari garen. Edozein iturgintza lan, herriko edo inguruko iturgin bati ematen, izan Igartzan edo Euskaltegian zerbait estropeatu delako. Dirulaguntzetan, aldiz, bidea ez da erraza eta zuen babesa ongi etorria da, jakinda ditugun zailtasunak. Horren ere lagin bat hartu zen eta ikusi zen plan estrategikoaren helburuak bete direla. Nik esan nahi dudana da egiteko badago ere, egiten dena balioan jarrri behar dela eta horretan jarraituko dugula denok gauzak ondo egin nahi ditugulako."<br><br>Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Noski, guk esaten duguna da goazen gabezi horiek eragiten duen saihestea eta gure ustez horiek funtzionatzeko moduak sortzen ditu. Iturgintza lanak, bai, baina agian udal brigadak egingo zituen.Ez dakit horiek zehazki baina badaude hainbat lan brigadak egiten zituztenak, karpa muntaiak, adibidez."<br><br>Alkate andreak (EAJ-PNV): "Ereduan diferentziak eduki ditzakegula posible da, baina eredu hori nola aurrera eraman erea galdetu beharko nizueke, zeren eta badakizue pertsonala kontratatzeko zein zailtasun dauden." | tomó una muestra de 30 expedientes de contratos menores y no se detectaron errores. En los contratos menores se ha hecho un gran trabajo y hay contratos que licitar. De todas formas tenemos que tener en cuenta cuando mencionamos los contratos menores, tenemos que tener claro de qué estamos hablando. Cualquier trabajo de fontanería, encargado a un fontanero del pueblo o de la zona, sea porque se ha tropeado algo en Igartza o en el Euskaltegi. En las subvenciones, en cambio, el camino no es fácil y vuestro apoyo es bienvenido, sabiendo las dificultades que tenemos. También se tomó una muestra y se vio que se han cumplido los objetivos del plan estratégico. Yo lo que quiero decir es que aunque hay mucho por hacer, hay que poner en valor lo que se hace y vamos a seguir haciéndolo porque todos queremos hacer las cosas bien. "<br><br>Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "Claro, nosotros lo que decimos es que hay que evitar esas carencias y creemos que las genera la forma de funcionamiento. Trabajos de fontanería, sí, pero quizá las podría realizar la brigada municipal. No sé esas exactamente pero hay varios que hacían la brigada de trabajo, como montajes de carpas, por ejemplo. "<br><br>La Alcaldesa (EAJ-PNV): "Es posible que podamos tener diferencias en el modelo, pero debería preguntarte cómo llevar adelante ese modelo, porque ya sabéis las dificultades para contratar personal." |
| **<u>6.- BERRI EMATEA</u>**:<br><br>• 2021eko ekainaren 28tik uztailaren 25erarte emandako Ebazpenak.<br><br>• 2021eko ekainaren 28tik uztailaren 25erarte emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.<br><br>Ezagutzera ematen dira aipatutako ebazpenak. | **<u>6.- DACIÓN DE CUENTA</u>**<br><br>• Resoluciones dictadas desde el 28 de junio de 2021 hasta el 25 de julio de 2021<br><br>• Resoluciones en relación a contratos menores desde el 28 de junio de 2021 hasta el 25 de julio de 2021.<br><br>Se han dado a conocer las resoluciones mencionadas. |
| **<u>7.- ESKAERA ETA GALDERAK</u>** | **<u>7.- RUEGOS Y PREGUNTAS</u>** |
| Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira: | En el apartado de ruegos y preguntas se han formulado la siguientes: |

| | |
|---|---|
| PLAZAPEko kontratuaren inguruan Nerea Manzisidor Mendizabal zinegotziak egindako galderari erantzun zaio, pandemiagatik kontratuaren epea luzatu zitzaiela 2021-01-31arte eta data horretan amaitu zela kontratua. Gertatzen dena da Igartza eta zinean ez bezala, kontratu horretan ez dago inolako kontraprestaziorik. Udalak ez die ezer ordaintzen eta kudeatzaileak ere Udalari ez, baina egia da lizitazio berria esleitu arte beraiek etekina ateratzen ari direla. | Se responde a la pregunta de la concejala Nerea Manzisidor Mendizabal sobre el contrato de PLAZAPE, que debido a la pandemia se les amplió el plazo del contrato hasta el 31-01-2021, fecha en la que finalizó el contrato. Lo que pasa es que a diferencia de Igartza y el cine, en ese contrato no hay ninguna contraprestación. El Ayuntamiento no les paga nada y el gestor tampoco al Ayuntamiento, pero es cierto que hasta que no se adjudique la nueva licitación ellos están obteniendo beneficios. |
| Eta tratatzeko besterik ezean bilera arratsaldeko zortziak eta hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut. | Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las veinte horas y diez minutos, de lo cual como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta. |